

KANPO-MERKATARITZAREN ESTATISTIKA (KAMEE). 2023ko azaroa

Zazpi hilabetetan tasa negatiboak izan ondoren, Euskal AEko esportazioak %0,8 gehitu ziren 2023ko azaroan

2023ko lehenengo hamaika hilabeteetako aldi metatuan, esportazioak 30.000 milioi eurotik gorakoak izan dira, eta merkataritza-superabita 5.200 milioi eurora iritsi da

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko ondasunen **esportazioek** (3.152 milioi euro) %0,8ko hazkunde nominala izan zuten 2023ko azaroan, aurreko urteko hil beraren aldean, produktu energetikoen bultzadari esker (%49,1) eta ez-energetikoei atzera egin arren (%-3,1).

Inportazioen kasuan (2.220 milioi), %12,0ko beherakada izan da. Inportazio ez-energetikoak %11,4 jaitsi ziren eta energetikoak %13,7; hala ere, urte arteko alderaketa tona inportatuetan eginez gero, %8,2ko hazkundera izan zen.

Merkataritza-saldoa positiboa da, 931,9 milioi euro ingurukoa, eta estaldura-tasa %142,0koa da.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Azaroa 2023

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Azaroa			Azaroa		
	2022	2023	Gehikuntza (%)	2022	2023	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETE, GUZTIRA	3.128.372	3.151.894	0,8	2.523.851	2.220.043	-12,0
ENERGIAZKO GAIAK	232.792	347.123	49,1	709.658	612.301	-13,7
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	2.895.580	2.804.771	-3,1	1.814.193	1.607.742	-11,4
URTEKO METATUA	30.200.457	30.264.708	0,2	26.948.445	25.059.752	-7,0
ENERGIAZKO GAIAK	2.597.879	1.687.484	-35,0	7.787.874	6.417.237	-17,6
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	27.602.577	28.577.223	3,5	19.160.571	18.642.515	-2,7
ARABA / ÁLAVA						
HILABETE, GUZTIRA	1.028.844	943.676	-8,3	528.725	482.475	-8,7
URTEKO METATUA	8.779.370	9.582.546	9,1	5.218.151	5.560.244	6,6
BIZKAIA						
HILABETE, GUZTIRA	1.156.935	1.276.791	10,4	1.507.733	1.280.352	-15,1
URTEKO METATUA	12.296.083	11.396.448	-7,3	16.442.596	14.644.717	-10,9
GIPUZKOA						
HILABETE, GUZTIRA	942.594	931.427	-1,2	487.393	457.216	-6,2
URTEKO METATUA	9.125.004	9.285.714	1,8	5.287.698	4.854.791	-8,2

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Data 2024ko Urtarrilaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Hil honetan Bizkaiko esportazioak %10,4 gehitu dira, Araban %8,3 eta Gipuzkoan %1,2. Esportazio energetikoei %49,6 egin dute aurrera Bizkaian, aurreko urteko hil beraren aldean, eta, horrela, zortzi hilabeteko tasa negatiboen bolada eten da.

Arabian, esportazioak "Garraio-materiala" eta "Metalak eta haien manufakturak" arloetan kontzentratzen dira; hala ere, lehenak %3,5eko murrizketa jasan du (guztira 567,1 milioi esportatu), eta bigarrenak %24,7 egin du atzera. "Garraio-materialak" % 60,1 biltzen du eta "Metalak eta haien

manufakturak" % 15,6. "Plastikoak eta kautxua" % 24,9 hazi da (64,2 milioi esportatu) eta "Materiala, makinak eta tresna elektrikoak" % 13,2, alegia, 62,7 milioi.

Gipuzkoan, nazioarteko merkataritzaren hiru laurdenak baino gehiago (%78,7) muga-zergen hiru ataletan izan dira batez ere, baina zenbaki desberdinak izan dituzte urte arteko konparazioan: "Materiala, makinak eta tresna elektrikoak" (%+16,0), "Garraio-materiala" (%+25,2) eta "Metalak eta haien manufakturak" (%-19,5).

Bizkaian, "Garraio-materiala" (%71,5) eta "Produktu mineralak eta energetikoak" (%50,7 eta 350,6 milioi esportatu) sektoreen esportazioak gora egin du, hau da, aurreko urteko hil berean baino 117,9 milioi eta 186.501 tona gehiago.

Jatorri eta xede diren herrialdeak, 2023ko azaroa

2023ko azaroan, bost herrialdek (Frantzia, Alemania, Estatu Batuak, Erresuma Batua eta Italia) osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko bezero nagusien taldea, esportatutako guztiaren %53,7 hartu baitute (1.693,1 milioi). Horietako hiru EB27koak dira, eta %61,5 barne hartzen dute.

Frantzia, guztira 524,1 milioi euroekin, esportazioen xede bakoitzeko herrialdeen rankingaren lehen postuan dago hilabete honetan, eta honako hauek nabarmentzen dira jasotzen dituen produktuen artean: "Petrolioaren olio finduak" (97,2 milioi), "Automobilentzako zati eta osagarriak" (35,2 milioi), "Kautxuzko pneumatiko berriak" (28,9 milioi), "Petrolio- edo mineral-olio bituminosoak" (27,4 milioi), "Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak" (24,8 milioi) eta "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" (23,6 milioi).

Alemaniarako esportazioak 460,7 milioi eurokoak izan dira hil honetan, eta, batez ere, automobilaren sektoreari lotutakoak izan dira: "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" (130,1 milioi), "Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak" (61,0 milioi), "Automobilentzako zati eta osagarriak" (43,5 milioi) eta "Kautxuzko pneumatiko berriak" (19,6 milioi), guztira 422 produktu desberdinetarako.

Estatu Batuak, 370,0 milioirekin, hirugarren postuan daude, esportazioak honako hauetan zentratuz: "Petrolioaren olio finduak" (143,6 milioi), "Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak" (38,6 milioi), "Biodiesela eta bere nahasketak" (30,5 milioi), "Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdinazkoak edo altzairuzkoak" (22,7 milioi), "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" (10,4 milioi) eta "Turborerreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, horien zatiak eta osagaiak barne", 10,1 milioi guztira 377 produktu desberdinetarako.

Erresuma Batuak, hil honetan, Euskal AEko esportazio guztien %5,4 (169,5 milioi) biltzen du; horietatik 24,4 milioi "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" dira, 17,7 milioi "Turborerreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, horien zatiak eta osagaiak barne", 15,1 milioi "Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak", 12,1 milioi "Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak", 9,1 milioi "Kautxuzko pneumatiko berriak" eta 8,0 milioi "Automobilentzako zati eta osagarriak", 419 produktu desberdinetarako.

Italiara 168,7 milioi euroko balioan esportatzen da, eta hilabete honetan egindako transakzioetan honako hauek dira nagusi: "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" (23,8 milioi), "Kautxuzko pneumatiko berriak" (10,9 milioi), "Hamar pertsona edo gehiago garraiatzeko ibilgailu automobilak" (9,2 milioi), "Materiala erauztean zulatzeko, eskariatzeko, fresatzeko edo hariztatzeko makina-erremintak" (7,6 milioi) eta "Automobilentzako zati eta osagarriak" (7,5 milioi). Guztira, 418 produktu.

Errusiara egindako esportazioak (2,6 milioi), funtsean, hauek dira: "Ontziak eta paketatzeko gailuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzeko makinak" 0,9 milioirekin, eta "Automobilentzako zati eta osagarriak" (0,7 milioi), gainerakoa (1,1 milioi) 17 produktuen artean banatzen da.

Gure inportazioen %51,2, hil honetan, EB27tik atera dira. Ondasunak hornitzen dituzten herrialdeen artean, Alemania nabarmentzen da 327,9 milioiko transakzioekin, batez ere "*Automobilentzako zati eta osagarriak*" (37,3 milioi), "*Enbolozko, dieselezko edo erdi-dieselezko motorrak*" (35,5 milioi), "*Soja-olioa*" (10,9 milioi), "*Motor eta sorgailu elektrikoak (multzo elektrogenoak izan ezik)*" (10,5 milioi) eta "*Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko produktu lauak, xaflatuak edo estaliak > 599 mm*" (8,2 milioi).

Frantziari gehien eskatu zaion produktua "*Burdinurto, burdina edo altzairuzko txatarra*" izan da, 20,6 milioirekin 180 milioi guztira 722 produktu motaren artean banatuta.

Italiatik 567 produktu ezberdin datoz, guztira 110,3 milioi euro, eta "*Metal arruntak eta burdinaren eta altzairuaren galdaketa eta manufakturak*" eta "*Garraiorako makineria eta materiala*" multzoetan biltzen dira.

EBtik kanpo, Brasil nabarmentzen da 202 milioirekin, eta horietatik 197,8 "*Petrolio edo mineral bituminosozko olio gordinak*" izan dira.

Nabarmentzekoak dira, halaber, Estatu Batuetatik datozen inportazioak (96,7 milioi), "*Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburo gaseosoak*" (30 milioi) eta "*Soja-babak, baita hautsiak ere*" (27,8 milioi) ardatz dituztenak.

Gehien inportatzen den produktu txinatarra "*Metagailu elektrikoak eta horien zatiak*" dira, 177 milioiko 42,5 milioirekin.

Hilabete honetan Errusiari erosi zaio 4,3 milioi euroko balioan, hau da, "*Aluminio gordina*" (2,6 milioi), "*Aluminiozko alanbrea*" (0,7 milioi) eta "*Titanio eta bere manufakturak, hondakinak eta hondakinak barne*" (0,4 milioi).

Inportazio energetikoak honela banatu dira: 338,4 milioi Amerikatik (%55,3), 197,8 milioi Brasildik, 63,5 Venezuelatik, 47 milioi Mexikotik eta 30 milioi Estatu Batuetatik; 135,4 milioi Asiatik (%22,1), Kazakhstanetik (54,8 milioi) eta Iraketik (80,3 milioi); 111,4 milioi Europatik (%18,2), ia guztiak Turkiatik (60,9 milioi), Belgikatik (28,0 milioi) eta Herbehereetatik (21,3 milioi); 27,1 milioi Afrikatik (%4,4), oso-osorik Libiatik.

2023ko azaroan merkaturatutako produktuak

Produktuen xehetasuna lau digituetara jaitsiz, 2023ko azaroan hamar muga-zergen partida nagusiek esportazioen %46,5 kontzentratu zutela ikus daiteke, 1.464,7 milioi euroko balio bateratuarekin.

25 muga-zergen partida nagusien barruan, azpimarratzekoak dira seitan izandako igoerak: "*Petrolioaren olio finduak*" (%43,3 eta 306,5 milioi esportatuak), "*Kautxuzko pneumatiko berriak*" (%21,9 eta 120,4 milioi), "*Automobilentzako zati eta osagarriak*" (%15,0 eta 214,1 milioi) "*Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak*" (%13,1 eta 199,4 milioi), "*Hamar pertsona edo gehiago garraiatzeko ibilgailu automobilak, gidaria barne*" (%331,9 eta 27,7 milioi) eta "*Petrolio edo mineral bituminosoaren olio gordinak*" (27,4 milioi).

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera (p). Azaroa 2023

	ESPORTAZIOAK GUZTIRA	3.151.894
1	8703 10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	359.902
2	2710 Petrolioaren olio finduak	306.540
3	8708 Automobilentzako zati eta osagarriak	214.086
4	8704 Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	199.360
5	4011 Kautxuzko pneumatiko berriak	120.384
6	7304 Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	59.648
7	7216 Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	58.793
8	9990 Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak	53.946
9	8481 Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	46.224
10	8603 Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako	45.791
11	8428 Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	42.015
12	7326 Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturak	37.689
13	8411 Turborreaktoreak, turbopropulsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	31.399
14	7228 Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	31.272
15	3826 Biodiesel eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisan % 70etik beherako edukiarekin	30.481
16	8431 Jasogailuen eta garraiagailuen zatiak, nibelatze makinak, pala mekanikoak, hondeamakinak, zulatzeko makinak, etab.	27.786
17	8702 Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	27.682
18	7222 Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	27.392
19	2709 Petrolioaren edo mineral bituminosoen olio gordinak	27.383
20	8439 Ore zeluloskoa, papera, kartoia eta horien akabera fabrikatzeko makinak	24.265
21	8504 Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	24.186
22	8483 Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak, etab.	24.158
23	2204 Ardoa, mahats freskoarena	22.578
24	8459 Material-abio bidez metala zulatu, eskariatu, fresatu edo haritzatzeko makina-erremintak, tornuak izan ezik	22.176
25	7606 0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	20.982

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Urtarrilaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Inportazioen kasuan, eta muga-zergen partida garrantzitsuenen kasuan, hazkunde adierazgarriak *"Metagailu elektrikoak eta horien zatiak"* (%41,2 eta 48,8 milioi inportatuak) eta *"Petrolio edo mineral bituminosoaren olio gordinak"* (guztizkoaren %23,9) sektoreetan kontzentratzen dira, %18,3ko hazkundea izan baitute (2022ko hil berean baino 82,2 milioi gehiago), guztira 531,7 milioiko erosketetarako.

Aitzitik, behera egin dute *"Petrolioaren olio finduak"* (%-61,4), beroan ijeztutako produktu lauak, aleatu gabeko burdina edo altzairua (> 599 mm) (%-68,6) eta petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburo gaseosoak (%-72,2) atalen inportazioek.

ARABA. Esportazioak 2023ko azaroan

Araban esportazioek %8,3ko beherakada izan dute, aurreko urteko hil beraren aldean. Portaera hori batez ere *"10 pertsona baino gutxiagoko turismoetan"* (293 milioi) (%14,9ko jaitsiera) eta *"Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdinazkoak edo altzairuzkoak"* (51 milioi) (%35,1eko atzerakada) dira. Aldiz, *"Salgaien garraiorako ibilgailu automobilak"* 199,1 milioi (%13,0ko igoera) eta *"Kautxuzko pneumatiko berriak"* (%47,9 eta 48,6 milioi) sektoreen salmentak igo egin dira, muga-zergen beste partida batzuen artean.

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Azaroa 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	1.028.844	943.676	100,0	-8,3
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	344.441	292.956	31,0	-14,9
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	176.225	199.144	21,1	13,0
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	78.623	51.031	5,4	-35,1
Kautxuzko pneumatiko berriak	32.820	48.555	5,1	47,9
Automobilentzako zati eta osagarriak	47.723	47.823	5,1	0,2
Ardoa, mahats freskoarena	23.984	20.927	2,2	-12,7
Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satelite eta ibilgailu espazialen zatiak	9.325	14.841	1,6	59,2
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	15.328	13.208	1,4	-13,8
Metal arruntezko ontzietarako tapoiak, tapak eta beste osagarri batzuk	14.866	9.058	1,0	-39,1
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	5.748	6.351	0,7	10,5

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Urtarrilaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

BIZKAIA. Esportazioak 2023ko azaroan

Bizkaiko lurralde historikotik egindako esportazioak %10,4 hazi dira. "Petrolioaren olio finduak", Bizkaiko ranking esportatzailearen lehenengo partida, dira hazkunde horren erantzuleak. Izan ere, %43,8ko hazkundearekin, 303,7 milioi esportatzera iritsi dira (aurreko urteko hil berean baino 92,4 milioi gehiago), eta horrek lurralde osoaren portaera baldintzatzen du. "Turborerreaktoreak, turbopropultsoreak eta gainerako gas-turbinak, horien zatiak eta osagaiak barne" (%57,0) eta "Petrolio- edo mineral-olio gordinak" (27,4 milioi esportatu) ere gehitu dira.

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Azaroa 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	1.156.935	1.276.791	100,0	10,4
Petrolioaren olio finduak	211.284	303.730	23,8	43,8
Automobilentzako zati eta osagarriak	69.696	77.010	6,0	10,5
Kautxuzko pneumatiko berriak	65.234	71.102	5,6	9,0
Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak	47.248	52.767	4,1	11,7
Turborreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	19.802	31.094	2,4	57,0
Biodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisan % 70etik beherako edukiarekin	22.329	30.481	2,4	36,5
Petrolioaren edo mineral bituminosoen olio gordinak	0	27.383	2,1	-
Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	30.973	20.953	1,6	-32,4
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	24.340	20.403	1,6	-16,2
Arrain izoztua xerratu gabe	22.236	18.842	1,5	-15,3

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Urtarrilaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

GIPUZKOA. Esportazioak 2023ko azaroan

Gipuzkoako esportazioek %1,2 egin dute atzera hil honetan. "Hamar pertsona edo gehiago garraiatzeko ibilgailu automobilak, gidaria barne" (%568,9), "Zelulosa-orea, papera, kartoia eta horien akabera fabrikatzeko makinak" (%420,2) eta "Jasotzeko eta garraiatzeko makinak eta aparatuen zatiak, nibelatzeko makinak, pala mekanikoak, hondeatzeko makinak, zulatzeko makinak, etab." (%151,2). "Automobilentzako zati eta osagarriak" ere nabarmen hazi dira (%29,7).

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Azaroa 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	942.594	931.427	100,0	-1,2
Automobilentzako zati eta osagarriak	68.805	89.252	9,6	29,7
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	86.893	56.018	6,0	-35,5
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatueterako	51.296	45.791	4,9	-10,7
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	35.486	36.797	4,0	3,7
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	35.545	29.410	3,2	-17,3
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	4.122	27.570	3,0	568,9
Ore zelulosikoa, papera, kartoia eta horien akabera fabrikatzeko makinak	4.642	24.150	2,6	420,2
Jasogailuen eta garraiagailuen zatiak, nibelatzeko makinak, pala mekanikoak, hondeamakinak, zulatzeko makinak, etab.	8.776	22.047	2,4	151,2
Material-abio bidez metala zulatu, eskariatu, fresatu edo hariztatzeko makina-erremintak, tornuak izan ezik	14.447	21.861	2,3	51,3
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturak	16.313	21.814	2,3	33,7

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Urtarrilaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

2023ko (URTARRILA-AZAROA) METATUA: ondasunen esportazioak %0,2 igo dira, merkataritza-saldoa positiboa da eta 5.205 milioi eurora iristen da, eta estaldura-tasa %120,8koa da.

2023ko lehenengo hamaika hilabeteetan, eta Euskal AEko esportazioetan, %0,2ko igoera erregistratu da aurreko urteko aldi beraren aldean, hau da, 64,3 milioi euro gehiago. Aldi honetarako esportazioen zenbatekoa 30.265 milioikoa da, eta kopuru horretarako ekarpen handiena Bizkaiak egin du 11.396 milioirekin (guztizkoaren %37,7), gero Arabak (9.583 milioi) eta azkenik Gipuzkoak (9.286 milioi).

Arabako esportazioek 803,2 milioiko urte arteko hazkundea izan dute 2022ko aldi beraren aldean, eta %9,1eko igoera erlatiboa. Gipuzkoan igoera askoz neurritsuagoa izan da (%1,8, 2022an baino 160,7 milioi gehiago); Bizkaian, aldiz, bilakaera negatiboa izan da, 899,6 milioi euro gutxiago, hau da, %7,3ko atzerakada.

Esportatutako produktu-mota kontuan hartuta, egiaztatu da "Produktu ez-energetikoek" bilakaera positiboa izan dutela, 974,6 milioi gehiagorekin, baina ez "Produktu energetikoek", 2022ko azarora arte metatutakoak baino %35,0 txikiagoak baitira (910,4 milioi gutxiago).

Euskal AEko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera, urteko metatua (p). Azaroa 2023

	Kodea	Izendapena	Mila euro
		ESPORTAZIOAK GUZTIRA	30.264.708
1	8703	10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	2.991.843
2	8708	Automobilentzako zati eta osagarriak	2.096.222
3	8704	Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	2.000.368
4	2710	Petrolioaren olio finduak	1.415.315
5	4011	Kautxuzko pneumatiko berriak	1.350.444
6	7304	Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	671.394
7	7216	Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	615.861
8	8481	Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	513.220
9	9990	Aduana-tarifar berariaz jasota ez dauden merkantziak	451.085
10	8603	Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsauearako	407.032
11	7326	Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	397.263
12	7228	Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	340.931
13	7222	Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	324.754
14	8411	Turborreaktoreak, turbopropulsaueak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	277.294
15	8428	Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	261.241
16	8504	Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	255.751
17	7606	0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	254.366
18	7325	Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	253.938
19	8607	Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	246.110
20	7306	Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	241.006
21	0303	Arrain izoztua xerratu gabe	239.764
22	7308	Xafien bidez eraikuntzak, barrak, profilak, tutuak eta fundicio-eta, burdinako edo altzairuko antzeko	238.812
23	1518	Erabilera tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	236.165
24	8483	Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, engrageak, etab.	223.399
25	8301	Metal arruntzeko giltzarroak, sarraila, morroilo eta giltzak	212.973

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Urtarrilaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Gehien saldutako hamar produktuek (muga-zergen partidak), 12.512,8 milioirekin, guztizkoaren %41,3 biltzen dute; horietatik bostek hazkunde-tasa positiboak dituzte 2022ko aldi beraren aldean. Guztien artean, nabarmentzekoak dira "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak", Euskal AEko esportazio-bolumen handiena erakusten jarraitzen dutenak, 2.991,8 milioirekin (%19,9ko hazkunde), eta "Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak" (2.000,4 milioi), %21,7ko hazkundearekin. "Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdinazkoak edo altzairuzkoak", "Kautxuzko pneumatiko berriak" eta "Automobilentzako zati eta osagarriak", hurrenez hurren %7,6, %18,9 eta %6,1eko hazkundeekin, partidak osatuko lituzkete aldi horretako garrantzitsuenen artean portaera nabarmenenarekin. Ranking horretatik kanpo, ez dugu ahaztu behar "Turborreaktoreak, turbopropulsaueak eta gainerako gas-turbinak, horien zatiak eta osagaiak barne" (%41,6) eta "Trenbideetarako ibilgailuen zatiak edo antzekoak" (%37,9) nabarmen hazi direla.

Kontrako noranzkoan, "Petrolioaren olio finduak" izandako jaitsiera esanguratsuak nabarmentzen dira (-%40,8, 2022an baino 975,9 milioi gutxiagorekin), ez baitira soilik prezioen jaitsieragatik justifikatzen; izan ere, esportatutako tonetan ere %33,5eko beherakada esanguratsua gertatu da, 2022an 2.871.344 tona izatetik 2023ko metatua 1.909.307 tona izatera igaro baita.


Gure esportazioen xede diren herrialdeen sailkapenaren buru Alemania dago, guztizkoaren %16,1. Alemaniaren atzetik daude Frantzia (%15,2), Estatu Batuak (%8,2), Erresuma Batua (%6,2) eta Italia (%5,6), bost herrialdeen artean esportazioen %51,2 bilduta, 15.510,5 milioi euro guztira.

Euskal Autonomia Erkidego osorako inportazioen metatua 25.060 milioi eurokoa da. Urte arteko zifra hori alderatuz gero, ikusten da 2022ko aldi berean erregistratutakoa baino 1.889 milioi txikiagoa dela. Bizkaian, 14.644,7 milioiko inportazioekin, %10,9ko atzerakada izan da, hau da, aurreko urteko aldi berean baino 1.797,9 milioi gutxiago. Gipuzkoak %8,2ko jaitsiera izan du, eta 433 milioi euro gutxiago, 4.854,8 milioiko inportazio-balioarekin. Azkenik, Araba da inportazioak hazi dituen lurralde bakarra, zehazki %6,6, aurreko urtean baino 342 milioi gehiagorekin, aldi horretan 5.560,2 milioi eurora iritsiz.

"Produktu energetikoen" inportazioa %17,6 txikiagoa da aurreko urteko aldi berekoa baino, eta "Produktu ez-energetikoen" %2,7 txikiagoa.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak 5.205 milioi euroko saldo positiboa izan du 2023ko lehen hamaika hilabeteetan, eta, horri esker, estaldura-tasa positiboa %120,8koa izan da.

Evolución del comercio exterior de la C.A. de Euskadi



Fuente: Eustat. Estadística de comercio exterior (ECOMEX)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62